

# “Lankidetzaren arloko murrizketen eraginez, utzi egin behar izan diogu hainbat testuingurutan eta herrialdean ekintzak egiteari eta han egonez laguntzeari”

Mercedes Ruiz

Garapen Lankidetzarako GKEen Koordinakundeko presidentea (CONGDE)



Garapen Lankidetzarako GKE batzuek urrezko ezteiak bete dituzte lankidetzaren proiektuen kudeaketan. Baina zer ospatu gutxi dute. Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO) 1981. urteko mailara jaitsi da, eta beste diru-laguntza batzuk murriztu edo kendu egin dituztenez, hainbat egoitza itxi behar izan dituzte, langileak murriztu eta proiektuak bertan behera utzi ere bai. “Eragina are gehiago sumatuko da 2013an eta 2014an”, ohartarazi du Mercedes Ruiz-Gimenezek, Garapen Lankidetzarako GKEen Koordinakundeko presidentea (CONGDE). Hori dela eta, eskaria egiten du “aurrekontuak kontuak har dezaten milioika lagun muturreko pobrezian bizi direla munduan”, eta herritarrei ere dei egiten die “pausoa eman eta konpromiso iraunkorra adieraz dezaten”.

**2013an Garapenerako Laguntza Ofiziala 1981eko mailara etorri da.** Ezin ulertuzkoa eta justifikaziorik gabea da erabat. 2008. urtetik hona, errenta nazionala %5 murriztu da, eta GLO, aldez, %70 2001. urtetik. Krisi ekonomikoa omen den honek –ez baita hala– murrizketa batzuk ekarri ditu, eta horien atzean eredu-aldaketa bat ezkututzen da. Aurrekontuak moralgabeak dira, ez dute kontuan hartzen milioika lagun muturreko pobrezian bizi direla.

**Zenbat murriztu dira Garapen Lankidetzarako GKEei ematen zaizkien diru-laguntza publikoak?** Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziatik (AECID) lortzen dituzte baliabideak GKEek, eta hor izan dira murrizketarik handienak (%70eko jaitsiera metatua). Haren aurrekontuaren %50 jasotzen jarraitzen dugu GKEok, eta eutsi egin zaie abian zeuden konpromisoei, baina kendu egin dituzte laguntza

bereziki eta hitzarmen berriak, hainbat urtetan lantzeko izaten diren programak %17 apaldu dira eta erakunde txikiagoak diruz laguntzeko deialdia oso urria izango da 2013. urtean.

**Zer ekarriko dio baliabide murrizketa horrek nazioarteko lankidetzari?** GKEak pobrezia handia duten lekuetan ari gara laguntzen, eta jardun hori Garapenerako Laguntza Ofizialaren mende dago. GKE horien bidez helarazten den laguntza bereiz hartzen badugu, eragina are gehiago sumatuko da 2013an eta 2014an. Lankidetzaren deszentralizatuak %50 egin du behera, eta gure laguntza ere hein berean murriztuko da. Baina, horretaz gain, erakundeek %19k utzi egin behar izan dugu herrialderen bat edo inguru geografikoren bat, %65ek murriztu egin ditugu tokian-tokian lantzen diren proiektuak eta Espainian lantzen diren proiektuen %37, leku batzuetan egoitzak itxi behar izan dituzte %21ek eta %50ek langileak murriztu.

**Murrizketa horiek izango al dute eraginik Milurteko Garapen Helburuetan?** Bistan da. Nazio Batuetako idazkari nagusiak berak onartu du Europako herrialdeen murrizketek bete-betean eragingo diotela helburu horiek lortzeko lanari.

**Beldurrik bai Garapen Lankidetzarako GKEei ematen zaizkien diru-laguntzak desagertzea, edo AECID bera?** Ez genuke nahi, baina AECIDen aurrekontua hainbeste murrizteak ekar dezake Agentzia gisa desagertzea.

**Hobetu egin behar al da laguntzaren eraginkortasuna?** Hori premiazkoa da, krisia izan edo ez. OCDEren Garapena Laguntzeko Batzordeak egin duen azken txostenean esaten du kontzentratzea komeni dela, eta Plan Zuzendariak ere jasotzen du hori. Beharrezkoa da, halaber, emaitzen arteko koordina-

zioa hobetzea, ebaluazioaren kontuan gauzak hobeki egitea, eta bermatzea zenbait arlotan egiten diren politika publikoen helburua izan dadila pobrezia aurka egitea eta giza eskubiak babestea.

**Garapen Lankidetzarako GKEek beraztertu egin behar lukete beren funtzionatzeko modua?** Beti egiten dugu, baina erantzukizun partekatua bat dugu. Gure profesionaltasuna dela eta, funts publiko gehienak Garapen Lankidetzarako GKEen bitartez bideratzen dira. Hala ere, dibertsifikatu egin behar ditugu gure iturriak, eta premiazkoa da mezenasgoaren legea egitea, emaille pribatuak motibatuta senti daitezkeen laguntza emateko.

**Enpresek lankidetzaren jardutearen aldeko apustua egiten du Plan Zuzendariak.** Horrexegatik eskatzen ditugu mekanismo etikoak haien ekarpenak erregulatu eta haien ekintzak kontrolatzeko, gainerako eragileek bezalaxe. Enpresa sozialei, giza garapenari eta garapen iraunkorrari begira ari direnei, ongietorria ematen diegu. Baina haien asmo nagusia aberastea bada, orduan kontra egiteko arrazoi asko izango ditugu.

**Estatistikek esaten dute Garapen Laguntza Ofizialen alde daudela herritarrak.** Baina jarrera hori ez da masiboa, eta ez da kalera irteten. Oso oso garrantzitsua da une jakinetan, adibidez larrialdi handietan, baina falta da pausoa eman eta konpromiso iraunkorra agertzea.

**Beste konpromisoetako bat da errenta nazionalaren %0,7 jartzea Garapen Laguntza Ofizialerako. Beteko al dugu? Urruti gaude, baina Irlandak eutsi badio, erreskatatua izan arren, Espainiak lor dezake.**

# “Gaur inoiz baino beharrezkoagoa da guztiok hartzea konpromisoa garapenerako lankidetzaren alde”

Juan López

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziako presidentea (AECID)

Gaur egungo egoeran, nahitaezkoa da lankidetzaren eredu berrietara egokitzea, non esperientzia teknikoa aprobetxatuko den baliabide ekonomikoaren faltan. Halaxe uste du Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziako presidentea, Juan López-Dórigak; haren iritziz, egungo egoerak “sakrifizio bat dakar, baina baita erronka bat ere” etorkizun hobe baten oinarriak finkatzeko. Testuinguru horretan, konpromiso tinkoa azaldu du garapenerako lankidetzaren alde, eta adierazi du AECIDek finantzatzaile izatetik bideratzaile izatera pasatu behar duela, eta trantsizio horretan, “ezinbesteko bazkide” jotzen ditu Garapen Lankidetzarako GKEak.

**Beti agertu duzu konpromisoa garapenerako lankidetzaren alde. Garai zailak al dira horri eusteko?** Gaur inoiz baino beharrezkoagoa da guztiok hartzea konpromisoa garapenerako lankidetzaren alde. Egoera ekonomiko nazionala zaila izanik, garrantzitsua da oroitaraztea guztion lana dela garapena sustatzea, guztiona eta guztiontzat izango dena, eta une zailetan ezin dela albora utzi. Egungo egoeran, ez soilik ekonomikoan, nahitaezkoa da ingurune berri batera eta lankidetzaren eredu berrietara egokitzea, non ez den ezinbestekoa izango baliabide izugarriak izatea, baizik eta gaitasun teknikoak, eta horiek baditugu.

**Zein da “egungo egoera” esaten dituzun hori?** Gaur egungo mundua ez da duela 25 urtekoa, AECID sortu zenekoa. Helburu berriak daude, adibidez klima-aldaketaren aurkako borroka, pobrezia mapa berri bat dago eta desberdintasunak areagotu egin dira. Gure kide diren herrialde batzuek

iritsi duten errenta mailarekin, jada ez da behar lehengo lankidetzarik. Testuinguru horretara egokitu behar dugu, eta lankidetzaren teknikoan metatu dugun esperientziari etekina atera.

**Lankidetzaren eredu jakin bati buruz ari zara?** Harreman bikaina dut emaitza diren beste herrialde batzuetako kideekin. Erronkak partekatzen ditugu indar gehiagorekin edo gutxiagorekin, eta horiei aurre egiteko irtenbideak aurkeztzen ditugu.

**Zer sakrifikatzea kosta zaizu gehien egoera ekonomiko honetan?** Egoera ekonomiko honek sakrifizio bat dakar, baina baita erronka bat ere. Egokitze eta hobetzeko une bat da, etorkizun hobe baten oinarriak finkatu ditugun.

**Espainiar Lankidetzaren 2013-2016 Plan Zuzendariak 23 herrialdetara mugatu du Espainiaren lankidetzaren jarduna. Ze irizpide erabili dituzue?** Plan Zuzendariak esaten du baliabideak kontzentratu egin behar direla Espainia baliagarri izan daitekeen lekuetan. Irizpide horri jarraituz, Latinoamerikan, Afrikan iparraldean eta Mendebaldeko Afrikan kontzentratu dugu gure lana.

**“Garapen-eragile” izendatzen dituzun enpresak, baina haien jardunaren araberakoa izango da hori...** Enpresak ez aintzat hartzea eragile garrantzitsu bat alde batera uztea da. Ehun produktiboa eta lanpostuak sortzen dituzte, garapeneraren lorpenei eusten dietenak. Badira adibide bikainak, ekarpen handiak egiten dituzten enpresenak.

**Aliantzak egitea ere proposatzen duzu ‘think-tanks’ direlakoekin eta unibertsitateekin.** ‘Think-tanks’ eta unibertsitateek lankidetzaren sortzen dute pentsamendua, eta subjektu aktiboak

dira nazioartean dituzten sareen bidez. Funtsezkoa da mundu akademikoarekin aliantzak egitea gure estrategiak zehazteko eta eragileen arteko koalizioetan aurrera egiteko, non guztiok egingo duten ekarpenen bat.

**AECID proiektuen finantzatzaile izatetik bideratzaile izatera pasa dadin proposatzen duzu. Zer ekarriko du rol aldaketa horrek?** AECIDek utzi egingo lioke finantzatu baizik egiten ez duen erakunde izateari, eta askoz ere paper aktiboa jokatu luke bideratzaile izanez. Garapen Lankidetzarako GKEak ezinbesteko bazkideak dira garapenean.

**Herritar batzuen ustez, ongi dago lankidetzaren murrizketak egitea espainiarrei eman beharreko laguntzak ugaritzeko.** Garapenerako lankidetzaren diru-atala ez da Espainian dauden oinarriko gizarte politiken mailakoa, askoz txikiagoa da. Baina, hala ere, Espainiaren lankidetzaren jasotzen duten herrialde kideetan mesede handia egiten du, haien garapen-oinarriak apalagoak direlako eta gizarte-egoerak askoz ere dramatikoagoak gureak baino. Horrek ez du esan nahi AECIDek ez duela zorrotz zaintzen garapenera bideratzen duen euro bakoitza, behar bezalako eragina izango duela bermatzeko, ongi jabetzen baita espainiarrek zer-nolako ahalegina egiten duten.

**Zergatik egin behar da apustu garapenerako lankidetzaren alde?** Lankidetzaren inbertsio bat da. Mundu partekatu batean, erronkak globalak dira. Garapenak, giza eskubideek, nazioarteko segurtasunak, terrorismoak, osasunak eta ingurumenak gizateriari eragiten diote, eta elkarrekin egin behar diegu aurre.

➔ [www.consumer.es](http://www.consumer.es)

